



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/09/27

## **Bizkaiak nazinoarteko ekintzailtza zentro bat eta Oil&Gas laborategi bat bultzatuko ditu**

Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldun Nagusiak gaur Gernikan egin dan Politika Orokorreko osoko bilkuran, legealdi honetako bigarrenean, iragarri dauenez, “datozan hilebeteetan” nazinoarteko ekintzailtza zentroa jarriko da martxan Bilbon, eta Oil&Gas sektorean nazinoartean erreferentziazkoa izango dan laborategia eregiako da. Gainera, “segurtasuna, konektibidadea eta arintasuna irabazten” lagunduko dauen “trafiko pilaketen kontrako asmo handiko plana” bultzatzearen alde agertu da.

Bizkaiko Foru Aldundiko arduradun nagusiak azpimarratu dauenez, 2017a “oso urte garrantzitsua” ari da izaten Bizkaiarentzat, eta bere konpromisoa adierazo dau, “2018a urte ikusgarria” izan daiten. Rementeriak, bere gobernuak jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren alde egin dauen apustua balorau dau eta, holan, azkenengo hiru urteetan 20.000 lanpostu sortu dirala azpimarratu dau. Dana dala, behin eta barriro esan dauenez, “oraindino bultzada handiagoa behar dabe” Bizkaian langabezia jarraitzen daben 76.000 pertsonen lanpostuak.

Dana dala, Batzar Nagusien aurrean izan dauen esku-hartzea, bere gobernuak egiteko konpromisoa hartu arren “oraindino” martxan jarri ez diran proiektuak aitatuz hasi dau. Horreen artean, 2017ko lehenengo hilebeteetarako iragarri ebazan inbertsino funtsak, pertsona zaintzaileen estatutua eta zahartzearen inguruko industriako sektore barriaren ustiapena aiatu ditu.

Bere Gobernuaren jarduketa nagusiak aztertu eta gero, Ahaldun Nagusiak datozen erronkak aiatu ditu. Horreen artean, Bizkaiko errepedietan “trafiko pilaketen kontrako asmo handiko plana” martxan jarteko daukan gogoaz azpimarratu dau, “segurtasuna, konektibidadea eta arintasuna irabazteko”. Arlo horretako “lehentasunen” artean, Rementeriak “obra handi bi” aiatu ditu: Ibaizabal itsasadarren alde biak lotzeko errepede proiektua –“Arrontegiren anaia” izango dana– eta Supersur izenekoa AP-68 autopisteagaz lotzeko beharra. Jarduketa bi horreekaz arindu egingo dira, bere ustez, Avanzadako, Ezkerraldeetik igaroten dan A-8ko eta Txorierriko igarobideko trafiko pilaketak. Hori bai, proiektu horreek gauzatzeko ezinbestekoa izango da “baldintza bi betetea: ordaindu ahal izatea eta bizkaitarron bizitza kalidadea hobetzeko baliagarriak izatea”, esan dau.

Garraio publikoaren arloan, Rementeriak esan dau Metroan “aurrerapausu bat emon” gurako leukela, lur azpiko trenaren eta Loiuko aireportuaren arteko loturari eta Metroa Galdakaogaz eta Usansoloko ospitaleagaz lotzeari jagokonez.

Gainera, Bizkaiko Ahaldun Nagusiak, bere gobernuaren “ekintza politikoaren erdigunea” pertsonak dirala azpimarratu dau. Esan dauenez, lortu dan “prestazino maila kontuan izanda, etorkizunaren eta gizarte zerbitzuen arloan aurrera egiteko moduaren inguruan gogoetea egin behar da, gizarte ekintza zelaz modernizau aztertu behar da”. Holan, gogorarazo dauenez, Aldundiak XXI. mendeko arreta eredu zelangoa izan beharko litzateken gaiaren inguruko gogoetea hasi dau, “integrata, iraunkorra, belaunaldi artekoa, gertukoa eta ikerketeagaz lotutakoa”, eta, esparru horretan, zentro batean “baldintza horreek guztiak batuko dituan” proiektu politikoa ari da diseinetan.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Azaldu dauenez, Aldundia beharrian ari da Arte Ederretako Museoko erakusketa ibiltaria Bizkaiko eskualde guztietara eroateko, eta paleolito garaiko artearen “aberastasuna” lurralde osora zabaltzeko, erakusketa ibiltari baten bitartez, baita be. Bukatzeko, gure hizkuntzaren ezagutzea eta gizarteko arlo guztietan erabiltea aktibetan jarraitzeko dauen konpromisoa berretsi dau. Iragarri dauenez, B2 mailako ikasleek be doban ikasiko dabe euskerea.

Rementeriak, fiskalidadearen arloan egon daitekezan aldaketa posibleen inguruan berba egiteko gorde dau bere hitzaldiaren parte bat. Gai horri jagokonez, herritarrei jagokezan zergak “ez ikutzearen” alde agertu da. Diru-bilketaren “%7a” hartzen dauen Soziedadeen Zergari jagokonez, aldaketa bat aurreikusten dau, Bizkaia “lehiakorragoa eta erakargarriagoa” egiteko, %28ko tasa fiskal nominala Europar apliketan dana baino altuagoa dagolako.

## OPOSIZINOA

Batzarretako taldeek esku-hartzeko izan daben txandea Arturo Aldecoak zabaldu dau. Talde Mistoaren ordezkari bakarra enpresa publiko kopuru handia murriztearen alde agertu da, eta Foru Gobernuak Bizkaiaren garapena bultzatzea Batzarretako taldeakaz “adostearen” aldeko apustua egin dau, adibide moduan Uriko Hondakin Solidoen Kudeaketa Planagaz lortu dan hitzarmena jarritz.

Javier Ruiz Bizkaiko Talde Popularraren bozeroaleak, bere aldetik, Ahaldun Nagusiaren hitzaldia ez dala beste batzuetan “besteko triunfalista” izan adierazo dau. Bere eretziz, gobernuaren ekintzea marketinean oinarritzen da. “Oso ondo erabilten dau eszenografia, ikusgaitasuna eta presentzia eukiteko”, esan dau, eta batzarkidearen berbetan, horrek Aldundiaren jarduketan “larregizko dimentsionamendua” erakusten dau.

Ruizek kritikau egin dau urte honeetan langabezian lortu dan murrizketea Estaduko gainerako lekuetan “baino txikiagoa” izatea. Bere berbetan, langabezia “%8,5” murriztu zan, eta Gizarte Segurantzaren altek “%1,5” egin eben gora. Estaduan, barriz, balio horreek handiagoak izan ziran, “%11” eta “%3,3” hurrenez hurren.

Aldundia animau egin dau, fiskalidatea “hazkunderako palanka” moduan erabili daian, eta, beraz, erreforma fiskal “ausartagoaren” aldeko apustua egin daian, “ikutu txikiak” egitera mugatu beharrian. Bizkaiko Batzar Nagusietan akordioa lortzeko gonbitea luzatu deutso Aldundiari.

Horrez gain, Ruizek kritikau egin dau epea bete ez izana barrikuntzaren inguruko funtsetan eta finantzen “hub” baten sorreran, eta Bizkaia “atzeko lekuetan” egotea enpresen jarduerari jagokonez. Azpiegiturei jagokonez, Ruiz Metroaren 4. linearen gauzatzea be egitasmoen barruan sartzearen alde agertu da.

Ostean, Podemos Bizkaiak kritikau egin dau EAJ-PNV, PSOE eta PP taldeek CETA akordioari emon deutsien laguntza, akordio horrek gure lurraldean izango dituan ondorioak “lehiakortasuna galtzea eta lan baldintzak okertzea” izango dirala esanez.

Horrez gain, Neskutz Rodríguez esanetan, Bizkaiko egoitzen grebea, zerbitzu publikoen pribatizazioaren adibide “argiena” da. Bere ustez, Aldundiak ez ditu enpresarioen esku itzi behar zainketeagaz erlasionautako beharrak, enpresarioen azken helburua euren enpresen irabaziak diralako. “Lortzen dana euren negozioa ziurtatzea da”, esan dau.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

Podemos taldeko bozeroaleak kritikau egin dau Foru Gobernuak orain azpiegitura handiak iragartea, legealdiaren hasikeran alderantzizkoa egin ebanean, eta gizarte arloko iruzurraren kontrako burrukara denpora asko bideratzea, iruzur fiskalean zentrau beharrean.

Fiskalidadeari jagokonez, Rodríguezek Bizkaia “paradisu fiskala ez bilakatzea” eskatu deutso Ahaldu Nagusiari. Eta garraio publikoaren arloan, tarifa bakarria eratu beharra azpimarratu dau behin baino gehiagotan.

Zabaldutako prozesu politikoa dala eta Kataluniari alkartasuna erakutsi ostean, EH Bildu taldeak langabezia dagozan milaka pertsonen gaian zentrau ditu bere kritikak, Ezkerraldean, Bilbon eta Enkarterrin batez be, eskualde horreetako datuak “oso-oso larriak” dirala adierazoz.

Josu Unanue bozeroaleak adierazo dauenez, egoitzetako 330 eguneko grebak “zalantzan jarri dau” zerbitzu publikoen “pribatizazioan” oinarritzen dan “gizarte babes sistema eredu”. Bere berbetan, “borondatea” faltau izan da egoitzetako lan gatazkea konpontzeko, arazo horreek “Aldundiarenak diralako, eta ez beste batzuenak”.

Koalizino abertzalearen bozeroaleak, eragile guztien –sindikatuak, patronala eta administrazioa– arteko eztabaida zabaletik sortuko dan fiskalidadearen erreforma “sakona” egin beharra aitatu dau, eta ez EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen artean “ezkutuan” egin dan prozeduratik sortutakoa.

Unanuek uste dauenez, zerbitzu publikoei eusteko ezinbestekoa izango da diru-bilketea handitzea, eta horretarako aldaketea sartu beharko da Soziedadeen Zergan, “salbuespen fiskalak murriztuz eta enpresen irabazien arabera tasa desbardinak jarritz”. PFEZ aldatzea eta aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga ezartea be planteau dau, eta baita “ezkutu” fiskala kentzea be.

EH Bilduren eretziz, Foru Gobernuaren lehentasunetako bat industria izan beharko litzateke, “industria barik ez dagolako etorkizunik”, Unanuek esan dauenez. Koalizino abertzalearen proposamenen artean, batzarkide abertzaleak krisian dagozan enpresak salbetako industria arloko inbertsino funtsa sortzea, “bost urteko epean barrikuntzak, innobazioak, BPGren %3a” hartzea eta energiagaz erlazioautako auditoria eta eraginkortasun aholkularitza plana aitatu ditu.

## FORU GOBERNUAREN ALDE

Beste alde batetik, Foru Gobernu eusten daben talde biak – EAJ-PNV eta PSE-EE– “baikor” agertu dira legealdi honetan geratzen dan epealdiari jagokonez, Bizkaiak erakutsi dituan datu ekonomikoak ikusita, bai langabeziaren murrizketari jagokonez, eta baita Ahaldu Nagusiak Gobernuaren ekintzaren inguruan emon dituan emaitzak ikusita.

Carlos Totorika Talde Sozialistak Bizkaiko Batzar Nagusietan dauen bozeroaleak, Bizkaian Soziedadeen Zerga jaistea “benetako akatsa” izango litzatekela adierazo dau, eta “fiskalidate progresiboaren” aldeko apustua azpimarratu dau.

Aurretik, eta Bizkaiko Batzarretan alkartu diran taldeen aurrean izan dauen esku-hartzean, Totorikak EAJ-PNV eta PSE taldeen arteko Gobernu hitzarmena defendidu dau. “Funtzionetan dabil”, “Bizkaiko herritarren arazo nagusiak konpontzera” bideratuta dalako. “Enpleguagaz,



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

behar gehien daukien pertsonenganako alkartasunagaz eta bardintasun politikeagaz erlazionautako lehentasunak dira elementu nagusiak”, esan dauenez.

Bere berbetan, helburu horreek beteteko baliabideak behar dira, zergen bitartez. Hori dala eta, “eraginkortasunean eta proportzionaltasunean” oinarritutako politika fiskala eskatu dau, “aberastasuna modu egokian banatzeko”.

Hori dala eta, esan dau bera ez dala “zergak igotzearen edo jaistearen inguruko eztabaida sinpleetan sartuko, batzuentzat oso entretenigarriak badira be”, “batzuetan gizarte arloko eskubideak eta hazkunderako aukerak murriztea eragin daikien eztabaidak” diralako.

Totoriak Soziedadeen Zerga aitatu dau. Izan be, “beste edozein zergagaz gertatzen dan moduan”, sozialistek “zorrotasunez eta datuakaz aztertu” gura dabela esan dau. “Soziedadeen Zergaren tasa nominaletatik haraindi, enpresek lortzen dituen irabaziek benetan zein tasa ordaintzen daben izan behar da kontuan. Eta enpresek Bizkaian daukien zerga tasa eraginkor horreek erakargarriak eta lehiakorak izaten jarraitzen dabe”, adierazo dau.

#### 2013KO ERREFORMA FISKALA EBALUETEA

Jon Andoni Atutxa EAJ-PNV taldeak Bizkaiko Batzar Nagusietan dauen bozeroaleak, bere aldetik, Bizkaia “lehiakorragoa lortzeko eta zerbitzu publikoak eta sozialak hobetzeko” fiskalitatea defendidu dau, eta Soziedadeen Zergaren bitartez, enpresetan “kultura barria” sortzearen alde agertu da. Enpresak “inplikau egin behar dira kalidadezko enpleguan, irabaziak barriri inbertitzean, innobazinoan eta ingurumenean”. Bere taldea 2013ko erreformea ebaluetearen eta “hobekuntzarako neurriak” proponidutearen alde agertzen da. Horri jagokonez, azaldu dauenez, Bizkaiak abuztura arteko diru-bilketea %14,9 hobetu dauen arren, “zuhurrak izaten jarraitu behar dogu”.

Atutxak esan dauenez, bere taldea bat dator Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldu Nagusiak osoko bilkura honetan esan dauenagaz, hau da, enpresek lehiakorrak izaten jarraitu behar dabela egoera “gero eta gogorragoan”, eta Soziedadeen Zerga, “zerga bat baino gehiago, industria politika gauzatzeko tresna dala”. EAJ-PNVko bozeroaleak esan dauenez, fiskalitatearen inguruko eztabaidan, bere taldea prest dago Batzarretako gainerako taldeakaz eztabaidatzeko eta akordioak lortzeko.

Beste alde batetik, azpimarratu dauenez, Bizkaia “suspertzearen bidean” dago, izan be, “20.000 lanbako gitxiago dago”, 14 hilebetz jarraian BPGk gora egin dau, eta 2018rako joerea be “positiboa da”. Dana dala, adierazo dauenez, beharrezkoa da “oso datu positibo” horreek “etxeetara” heltzea. Hori dala eta, gobernu taldea animau dau, “bere gobernu ekintzaren oinarritzko ardatzakaz” jarraitu daian.

Horri jagokonez, lurraldean oraindino 75.000 lanbako dagozala esan ostean, “persona horreentzat guztientzat aukerak sortzeko beharrean jarraitzearen” garrantzia azpimarratu dau, eta sortzen dan enplegua “kalidadekoa izatea, lanpostu egonkorrak eta duinak eskainiz, hain zuzen be”.

#### INPLIKAZINOA EGOERA GAITZEAN DAGOZAN ENPRESAKAZ

EAJ-PNV taldeko batzarkideak, Foru Gobernuak daukan “inplikazinoa” azpimarratu dau, “gaiztasun egoera larrian dagozan gure lurraldeko enpresek euren jardureagaz jarraitu ahal



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

daien”. Holan, bat etorri da Ahaldun Nagusiagaz, “enpresak zabalik jarraitzean zentrau behar garala” esatean, “enpresa batek egun batetik bestera jaitsi daikealako persianea, eta beste persiana bat igotzea asko kostetan dalako”:

Bere eretziz, Foru Gobernuak “bere aukeren barruan behar egin dau, egiten dau eta egingo dau, CEL, La Naval eta horreen industria auxiliarrak euren jardureagaz jarraitu ahal daien”. “Hori arazoei aurre egitea eta soluzinoak bilatzea da”, adierazo dau.

Bere esku-hartzeari amaierera emoteko, datuek erakusten dabenez Bizkaia “gaur egun igaz baino egoera hobean dagola” adierazo dau Atutxak, baina argi eta garbi itzi dau “ezin garala erlaxau”, datorren urtean “datu hobeak aurkeztu ahal izateko”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
27/09/2017

## **Bizkaia impulsará un centro internacional de emprendimiento y un laboratorio de Oil&Gas**

El diputado general de Bizkaia, Unai Rementeria, ha anunciado en el pleno de Política General celebrado hoy en Gernika, el segundo de la legislatura, la puesta en marcha "en los próximos meses" de un centro internacional de emprendimiento en Bilbao y la construcción de un laboratorio de referencia internacional para productos relacionados con el sector de Oil&Gas. Asimismo, ha apostado por impulsar "un ambicioso plan contra los atascos" que permita "ganar seguridad, conectividad y fluidez".

El responsable de la Diputación vizcaína ha destacado que 2017 está siendo "un año muy importante" para Bizkaia y ha expresado su compromiso para que "2018 sea un año espectacular". Rementeria ha valorado la apuesta de su gobierno por la actividad económica y el empleo y, en este sentido, ha destacado la creación de 20.000 puestos de trabajo en los tres últimos años, si bien ha insistido en que "quedan por impulsar" los empleos de las 76.000 personas que siguen desempleadas en Bizkaia.

Su intervención ante la Cámara foral ha comenzado, no obstante, con una alusión a los proyectos que su gobierno se comprometió a realizar y "todavía" no han puesto en marcha, entre los que ha citado los fondos de inversión que había anunciado para los primeros meses de 2017, el estatuto para las personas cuidadoras y la explotación de un nuevo sector industrial en torno al envejecimiento.

Tras repasar las principales actuaciones de su Gobierno, el diputado general ha abordado los próximos retos, entre los que ha destacado su deseo de trazar un "ambicioso" plan contra los atascos en las carreteras de Bizkaia para "ganar seguridad, conectividad y fluidez". Entre las "prioridades" en esta materia, Rementeria ha citado "dos obrones": un proyecto viario para unir las márgenes del Nervión -"el hermano para Rontegi"- y la necesidad de unir la Supersur con la AP-68. Con ambas actuaciones se aliviarán, a su juicio, las congestiones en La Avanzada, la A-8 a su paso por la Margen Izquierda y el corredor del Txorierrri. Eso sí, se materializarán si se dan "dos condiciones: que se puedan pagar y que mejoren la calidad de vida de los vizcaínos y vizcaínas", ha dicho.

En materia de transporte público, Rementeria ha asegurado que le gustaría "dar un paso adelante" en el Metro, en relación a la conexión del suburbano con el aeropuerto de Loiu y la conexión del Metro con Galdako y el hospital de Usansolo.

Asimismo, el diputado general de Bizkaia ha destacado que las personas son "el centro de la acción política" de su gobierno. Según ha indicado, se ha alcanzado "tal nivel de prestaciones que toca reflexionar sobre el futuro y sobre cómo avanzar en los servicios sociales, cómo modernizar la acción social". En este sentido, ha recordado que la Diputación ha iniciado una reflexión sobre cómo debería ser el modelo asistencial del siglo XXI, "integral, sostenible, intergeneracional, cercano y conectado a la investigación" y ha avanzado que, en este marco, se está diseñando un proyecto piloto en un centro que "aúne esas premisas".



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

También ha explicado que se trabaja en llevar una exposición itinerante del Museo Bellas Artes por todas las comarcas de Bizkaia, así como por extender a todo el territorio la "riqueza" en arte paleolítico, también con una muestra itinerante. Finalmente, ha reiterado su compromiso por seguir activando el conocimiento de nuestra lengua y su uso en todos los ámbitos sociales. Ha anunciado que los estudiantes del nivel B2 de euskera tendrán también formación gratuita.

Rementeria ha guardado parte de su discurso para hablar de los posibles cambios en materia de fiscalidad. En este sentido, ha manifestado su deseo de "no tocar" los impuestos que afectan al ciudadano. Respecto al Impuesto de Sociedades, que supone el "7%" de la recaudación, prevé una modificación para lograr una Bizkaia "más competitiva y atractiva", porque el tipo fiscal nominal del 28% se encuentra por encima del que se aplica en Europa.

## OPOSICIÓN

El turno de intervención de los grupos junteros ha sido abierto por Arturo Aldecoa. El único representante del grupo Mixto ha abogado por eliminar el número de empresas públicas y ha apostado por que el Gobierno foral "acuerde" con los grupos junteros para impulsar el desarrollo de Bizkaia, poniendo como ejemplo el pacto logrado con el Plan de Gestión de Residuos Sólidos Urbanos.

Por su parte, el portavoz del grupo Popular Vizcaíno, Javier Ruiz, ha definido el discurso del diputado general de "menos triunfalista" que el de otras ocasiones. Cree que la acción de gobierno se apoya en el marketing. "Maneja bien la escenografía para tener visibilidad y presencia", ha dicho, lo que refleja, según él, "un sobredimensionamiento" de las actuaciones de la Diputación.

Ruiz ha criticado que el descenso del paro logrado en estos años haya sido "más tibia" que en el resto del Estado. Según él, el desempleo descendió en un "8,5%" y las altas a la Seguridad Social crecieron un "1,5%", mientras que en el Estado estos valores se situaron por encima, en el "11%" y el "3,3%", respectivamente.

Ha animado a la Diputación a utilizar la fiscalidad como "herramienta de palanca para el crecimiento" y a apostar, por tanto, por una reforma fiscal "más valiente", que no sean "pequeños retoques". Le ha citado a lograr un acuerdo en las Juntas Generales de Bizkaia.

Ruiz, además, ha criticado también que no haya cumplido los plazos en los fondos de innovación y en la creación del "hub" financiero, y que Bizkaia se encuentre en el "furgón de cola" en cuanto a actividad empresarial. En relación a las infraestructuras, Ruiz ha abogado por que se incluya también la materialización de la línea 4 del metro.

A continuación, Podemos Bizkaia ha criticado el apoyo de PNV, PSOE y PP al acuerdo CETA cuyas consecuencias se verán en el territorio "con una pérdida de competitividad y un empeoramiento de las condiciones laborales".

Asimismo, para Neskutz Rodríguez, la huelga en las residencias de Bizkaia es el ejemplo "más fragante" de privatización de los servicios públicos. Cree que la Diputación no debe dejar a empresarios los trabajos de cuidado, ya que estos tienen como último objetivo el beneficio de sus empresas. "Se está a asegurarles el negocio", ha dicho.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

La portavoz de Podemos ha criticado que el Gobierno foral anuncie ahora grandes infraestructuras, cuando hizo lo contrario al inicio de la legislatura, y dedique más tiempo a luchar contra el fraude social en vez de poner la lupa en el fraude fiscal. Respecto a la fiscalidad, Rodríguez le ha pedido que Bizkaia "no se convierta en un paraíso fiscal". Y en materia de transporte público, ha insistido en la creación de una tarifa única.

## DESEMPLEO Y FISCALIDAD

Después de mostrar su solidaridad con Catalunya por el proceso político abierto, EH Bildu ha puesto el foco de sus críticas, por su parte, en las miles de personas que se encuentran en paro, especialmente en Ezkerraldea, Bilbao y Enkarterri, comarcas que cuentan con "datos alarmantes".

Además, el portavoz Josu Unanue ha mantenido que los 330 días de huelga en las residencias "han cuestionado el modelo del sistema de protección social" que se mueve en la "privatización" de los servicios públicos. Según él, ha faltado "voluntad" para resolver el conflicto laboral de las residencias, problemas "que son propios, y no ajenos".

El portavoz de la coalición abertzale se ha detenido en la necesidad de hacer una reforma "en profundidad" de la fiscalidad que salga de un amplio debate con todos los agentes –sindicatos, patronal, partidos políticos y administración- y no de un procedimiento "a escondidas" entre PNV y PSE-EE.

Unanue cree que el mantenimiento de los servicios públicos requiere de una mayor recaudación que debe proceder de un cambio en el Impuesto de Sociedades, mediante "la reducción de las exenciones fiscales y tipos diferentes en función de los beneficios de las empresas". Ha planteado una reforma del IRPF y la implantación de un Impuesto sobre la riqueza y las grandes fortunas, así como la eliminación del "escudo" fiscal.

EH Bildu cree que una de las prioridades del Gobierno foral debería ser la industria, porque "sin industria no hay futuro", ha dicho Unanue. Entre las propuestas de la coalición abertzale, el apoderado abertzale ha citado la creación de un fondo de inversión industrial para salvar empresas en crisis, un gran pacto social para que la innovación alcance "el 3% del PIB en cinco años", y un plan de asesoramiento de auditoría y de eficiencia energética.

## APOYO AL GOBIERNO FORAL

Por otro lado, los dos grupos junteros que apoyan al Gobierno foral – PNV y PSE-EE- se han mostrado "optimistas" con el resto de legislatura a raíz de los datos económicos de Bizkaia en cuanto a reducción del desempleo y a los resultados aportados por el diputado general en virtud de la acción de Gobierno.

El portavoz del Grupo Socialista en Juntas de Bizkaia, Carlos Totorika, ha advertido de que bajar el Impuesto de Sociedades en Bizkaia sería "un auténtico error" y ha insistido en su apuesta por "una fiscalidad progresiva".

Previamente a escenificarse este desencuentro con Rementeria, Totorika ha defendido el pacto de Gobierno entre el PNV y PSE, que "está funcionando" porque se enfoca a "resolver los





BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

principales problemas de la ciudadanía vizcaína". "El enfoque hacia las prioridades de empleo, solidaridad con las personas más necesitadas y política de igualdad, son los elementos principales", ha asegurado.

A su juicio, para cumplir estos objetivos se necesitan recursos, a través de los impuestos, por lo que ha reclamado una política fiscal basada en la "eficiencia y proporcionalidad para garantizar la redistribución de la riqueza de forma justa".

Por ello, se ha negado a "debates simples sobre subir o bajar impuestos, que tanto pueden entretener a algunos" porque "son debates que pueden generar en ocasiones rebajas de derechos sociales y oportunidades de crecimiento".

Totorika ha aludido al Impuesto de Sociedades que, "como cualquier otro impuesto", para afirmar que los socialistas quieren "analizarlo con rigor y con datos". "Más allá de los tipos nominales del Impuesto de Sociedades está el tipo efectivo por el que tributan realmente los beneficios que obtienen las empresas. Y esos tipos efectivos de tributación de las empresas en Bizkaia siguen siendo atractivos y competitivos", ha señalado.

#### EVALUAR LA REFORMA FISCAL DE 2013

Por su parte el portavoz del PNV en las Juntas Generales de Bizkaia, Jon Andoni Atutxa, ha defendido una fiscalidad para tener una Bizkaia "más competitiva y mejorar los servicios públicos y sociales", y ha apostado por generar, con el Impuesto de Sociedades, "una nueva cultura" en las empresas, que "deben implicarse con el empleo de calidad, la reinversión de los beneficios, la innovación y el medio ambiente". Su grupo apuesta por evaluar la reforma de 2013 y proponer "medidas de mejora". En este sentido, ha afirmado que, aunque Bizkaia ha incrementado un 14,9% su recaudación hasta agosto, "debemos ser prudentes".

Atutxa ha afirmado que su grupo coincide con lo expresado por el diputado general de Bizkaia, Unai Rementería, en este pleno en relación a que las empresas deben seguir siendo competitivas en una situación "cada vez más dura" y en que el Impuesto de Sociedades "más que un impuesto, es una herramienta para hacer política industrial". El portavoz del PNV ha afirmado que, en el debate sobre fiscalidad, su grupo está dispuesto a debatir y acordar con el resto de grupos de la Cámara.

Por otro lado, ha destacado que Bizkaia está "en la senda de la recuperación", de manera que "hay 20.000 personas desempleadas menos", se acumulan 14 trimestres consecutivos de crecimiento del PIB y la tendencia para 2018 "se presenta igualmente positiva". No obstante, ha señalado la necesidad de que los "datos muy positivos" lleguen "a los hogares". Por ello, ha animado al equipo de gobierno a mantener "los ejes básicos de su acción de gobierno".

En este sentido, tras advertir de que todavía quedan 75.000 personas en situación de desempleo en el territorio, ha incidido en la importancia de "seguir volcados en generar oportunidades para todas esas personas y que sean en forma de empleo de calidad, en forma de empleos estables y dignos".

#### IMPLICACIÓN CON LAS EMPRESAS EN DIFICULTADES



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

El juntero del PNV ha destacado "la implicación" del Gobierno foral para que "las empresas de nuestro territorio que están atravesando graves dificultades puedan mantener su actividad". De este modo, ha dicho coincidir con el diputado general en que "debemos centrarnos en que las empresas sigan abiertas" porque "una empresa puede bajar la persiana de un día para otro y levantar una nueva persiana cuesta muchísimo".

En su opinión, el Gobierno foral, "en la medida de sus posibilidades, ha estado, está y estará en que empresas como CEL, La Naval y su industria auxiliar puedan continuar con su actividad". "Esto es encarar los problemas y buscar soluciones", ha manifestado.

Atutxa ha concluido su intervención incidiendo en que los datos indican que Bizkaia "hoy se encuentra en mejor situación que el pasado año", pero ha advertido de que "no podemos relajarnos" con el objetivo de que el próximo año "podamos estar aportando mejores datos".